

## **BILBAO 2010. GOGOETA ESTRATEGIKOAK.**

### **Pertsonak. Ezagutza Berrikuntza. Bilboren Estrategia Berria.**

Duela zortzi urte, Bilboko birsortzerako estrategia bat definitu genuen. Instituzio publikook eta pribatuok egitearen konpromezua hartu genuen biztanleen iritziak eta nahiak kontuan izanez.

Gaur Bilbao aldatu egin da. Egunero, urtero egindako lanak emaitzak eman ditu. Hori ikusi eta sentitu ahal da kaleetatik paseatzean, jendearen elkarrizketetan. Gaur etorkizunari baikortasunez begiratzen diogu. Eta aukera berriak ikusten ditugu.

Aldaketa momentuak bizitzen ari gara. Hiri handiek, Industria Aroaren emaitza direnek, hiri-mota berriari lekua egingo diote. Bilboren etorkizuna Ezagutza Gizartea lideratzeko prestatzen ari diren hiriena da.

Bizi kalitatea, heziketa-sistema, informazio eta ezagutza eskuratzea, hirien integrazioa hiri sare orokorretan, ideia berriak sortzeko eta ekartzeko eta berritzeko ahalmena, pertsonak eta beren partehartze eta identifikazioa hiriarekin eta hiriaren proiektuekin. Pertsonak, ezagutza eta berrikuntza Aro berriaren hirien faktore bereizgarriak dira.

Aro Orokorrak honako arauak ditu: edo ezagutza sortzen dugu edo beste batzuek garatutako ezagutzaren menpe egongo gara; edo "world-class"eko kideak izaten gara edo bazterturik geratuko gara. Hori da lehenengo helburua. Gero, Bilbao "best in world" bihurtzeko erronka helduko da.

Berrikuntzaren gizarte arkitekturaren garapena pertsonengan oinarrituta eta aukera berrien identifikazioaren ahalmena indartzean, hau da, "amets egitea", idealak izatea. Errealitatea egiteko ideiarik onenak Bilbora erakarriko dituen ingurune bat sortzea. Ametsak errealitate bihurtzeak izan behar du Bilboren erantzuna Aro berriaren erronken aurrean.

Dokumentu honetan "Bilbao 2010. Gogoeta Estrategikoa"ren aurkezpenarekin Bilboko garapenean lankidetzat publiko-pribatuaren konpromezua berritzen dugu.

Gure hiriaren 700. urteurrena hurbil dagoenez gure ametsak errealitate bihurtuko duten helburu berriak proposatuko ditugu, baina beti Bilboren izpirituari leialak izanez, "ezinezkoak lortzen dituen izpirituak", alegia.

José Antonio Garrido  
Lehendakaria

### **Bilbao Beste Mende Batean.**

#### **Munduaren testuingurua**

Munduko ekonomia gero eta zabalagoa, orokorragoa eta lehiakorragoa da eta alde mailako espezializazioaren inguruko abantail lehiakorren probetxamendua bideratzen duten harreman

ekonomiko eta produkzio aribide deszentralizatu eta bereziagoak ditu. Hori guztia egingarria da informazio eta komunikabideen teknologien garapenak (IKT) dakarren iraultza berria dela eta. Izan ere, horiek mundua “herri orokorra” bihurtzen ari dira, bertan ideiak edozein leku eta momentutan eskuragarri daudela eta produktuak eta kapitalak modu malgu eta dinamikoan sortzen direla, herriak eta mota guztietako mugak zeharkatuz.

Globalizazio aribidea eta horrek enpresa mailan dituen ondorioak denbora laburrean ematen ari dira. Enpresek aurre egin behar dioten errealitate sozioekonomikoa: elkarlehia handia, berritze behar gero eta handiagoa, merkatuen munduratzeara, sortze azkarra, teknologia berrien finkapen eta gainbehera, etab. Hori guztia pentsaezina izan zitekeen duela urte gutxi batzuk, eta horrexegatik, alegia, ezin bestekoa da irudimen ahalegin handia lehiakortasunaren abantailen ahalmenak, oinarriak eta gakoak hurrengo mendeko enpresetan eta hirietan aztertu eta identifikatzeko, hartara, egoera eta jarraituko den estrategia egokia aukeratzeko.

Globalizazio aribidea urbanizazio aribide harrigarri baten eskutik dator. Urte gutxi barru munduko biztanleri gehiena hirietan biziko da. Informazioaren teknologien garapen biziak aldean eta, hauen barruan, metropolien partehartze eta garrantzi gero eta handiagoaren aribidea bizkortzen du, betiere, enpresek lehiakortasun abantailak ezarri, artikulatu eta burutzeko oinarri bezala. Biztanleriaren bilketaren ondorioz metropolitarrak hirikidetzak aldarazi eta berrikuntza zentroak edo merkataritza guneak ezezik, hezkuntza, ikerketa, osasun-laguntza egokia, garraio, arte, kultura anitzen gizarteratze, turismo, aisi eta abar luze baterako leku ere bihurtzen ditu, betiere aberastasuna sortzeko ahalmen handiarekin. Ezin da ahaztu hiriak direla gizarte, hirigintza eta era guztietako arazoak latzen agertzen diren tokia.

Egoera berri honetan estatu tradizionalak txikiegiak dira ekonomia orokor baten gidalerroak ezarri eta kontrolatzeko, baina era berean handiegiak bertako biztanleen gizarte, ekonomia eta kultura arloko interesen aniztasuna isladatzeko. Metropoliek, ordea, legezketasun handiagoa dute gizarte eta kultura mailan eta, txikiagoak izateagatik, malguagoak dira pertsonen premiei aurre egiteko, aldaketei egokitzeko eta baita arazo eta helburu antzekoak dituzten beste hiri eta aldeekin lan sareak ezartzeko ere.

Hiritarrendandik hurbil egotea eta hiriaren malgutasuna bultzatu eta probetxatu behar diren abantailak dira etorkizunaren ikuspegi komun batekin, arazoak konpontzeko eta baliabideak eta aukerak eragingarritasunez probetxatzeko bertan bizi direnen onerako. Ildo honetan, globalizazioak “lokalizazio” aribide bat darama berarekin batera, metropoli eta aldean botere politiko eta ekonomikoen hazkuntza bereizgarri duena. Gainera, metropolirik aurreratuenek garatutako estrategiaren azterketak zenbait rol estrategiko identifikatzea ahalbidetzen du:

- Batetik, zenbait gizarte eta birbizte ekimen bultzatu eta lideratzen dituen mobilizazio eta lankidetzak publiko-pribatuak dakarren arrakasta faktorea agerian geratzen da. Izan ere, azken hori komunitatearen partehartze gero eta handiagoarekin batera, gizarteratze eta artikulazio aribidearen oinarri bihurtzen da.

- Estrategia metropolitarraren bigarren lotura puntua hirien hiri-birsortze eta ingurugiro-berreskurapenaren inguruan datza eta, jarduera sektore berriak eratu eta sortzeko hainbat apusturekin batera, aberastasuna sortzeko gako bihurtzen da.
- Azkenik, ekonomia orokortuan, aldean hazkuntza eta garapen ahalmena faktore ikutuezinen menpean daude gero eta gehiago, besteak beste: ezagutza, berritzeko eta ideia berriak aribide eta produktu berri bihurtzeko gaitasuna, eta arriskatu eta aberastasun iturri den enpresa oinarri bat sortzeko gai diren ekintzaileen presentzia.

Faktore ikutuezinen pisurik handienak mentalitate aldaketa eskatzen du lehentasunak ezartzeko orduan, bai gizartearen agente guztietan eta baita Herri Administrazioetan ere. Komunikazioen azpiegitura ezezik, agenteen arteko komunikazioa eta networking-a indartzea ere bultzatu egin behar dira. Kapital fisikoan egindako inbertsioa erraztu eta malgutzeaz gain, beharrezkoa da giza-kapitalean egingo den inbertsioa ere gero eta gehiago indartzea eta baita ezagutza eta know-how ustiatzeko gai diren subjektu bakarren moduan pertsonak bideratzea ere, horrela aberastasuna sortuko da. Gizarte berrian, hiriek duten lehengai nagusia pertsonak eta hauek aldaketarako duten irudimena dira.

Hiri estrategien hiru lotura elementu horiekin batera, elkarbizitzaren balio berriak sortzen dira, horietan nagusi direlarik (i) hiria interes komunak eta etorkizunaren ikuspegia duen komunitate bihurtzeko pertsonak duten garrantzia, (ii) gizarte harrotasuna, alde eta hiriei beren berezitasun eta balio zehatzak gordetzea posible egiten diona, horrela pertsonen, enpresen eta erakundeen identifikazioa indartuz eta lurraldean gero eta gehiago finkatuz; (iii) kultura aniztasuna ezberdintasunak ekiditeko eta gutxiengoak ikuspegi komun batean bateratzeko, eta (iv) sostengarritasuna, ingurugiroaren degradazioa eta desoreka ekologikoa geratu beharra baino gauza gehiago biltzen dituen: baliabide naturalak etorkizuneko belaunaldientzat gordetzea dakar, guztiontzako bizi kalitate altuagoa eta berdintasun handiagoa lortu nahian.

### **Birbizte aribidea**

Aldaketak ere errealitate bat dira metropoliari buruz ari garenean. Bilbao Metropolitarrak birbizte aribide kementsua izan du 90eko hamarkadan, eta horrek hiritarren bizitza aldatu du. Ondoren, “BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO EGITASMO ESTRATEGIKOA”k identifikatzen dituen zortzi arlo garrantzitsuenak jarraituz Bilboko bilakaera aztertuko da.

#### **Inbertsioa giza-baliabidetan**

Giza-baliabidetan egindako inbertsioaren ikuspegitik, aldaketa sakona ekarri duen eguneratze etengabea eman da. Ikasketa ertainak eta goi mailakoak dituen jendearen proportzioa modu nabarian hazi da eta, zalantzarik gabe, historia osoko belaunaldirik onenak eta ondoen trebatuak daude gaur egun. Beste alde batetik, hiritarrek gero eta hobeto dakite giza-kapitalaren ahalmena garatzen jarraitzeak duen garrantzia metropoliaren birbizte aribidea bermatu eta aurrera eramateko. Bilbao Metropolitarra martxan jartzeak berezko ahalmenen, ekonomiaren

globalizazio gero eta handiagoarekin lotuta daudenak, garapena behar du. Bereziki, ingelera eta telematika gero eta lehiakorrago menperatzea beharrezkoa da.

#### Zerbitzu aurreratuen metropolia alde industrial moderno batean

Hirugarren sektore aurreratuaren hazkuntza Bilbao zerbitzuen metropolia moduan aurkeztearekin bat dator. Horrela, industria astunetik enpresa-ehun moderno eta lehiakor batera pasatzen ari da, sortzen ari diren etorkizuneko sektoreetan gero eta dibertsifikatuagoa, zerbitzu aurreratuen sektore tinko baten eta oinarritzko teknologia eta berritze zentroen sare baten laguntzaz.

#### Mugikortasuna eta ailegagarritasuna

Azpiegituren garapena izan da Bilbao Metropolitarraren birbizte arribideari hasiera eman diona. Azken urteotan metropoliaren ailegaeraztasun eta mugikortasun mapa erabat aldatu duten aurrera pausu nabariak gertatu dira eta, oraindik ere bukatzeko dauden hainbat proiektu garrantzitsu geratu arren, hauetako gehienek badute egingo diren epea ezarrita.

Hala eta guztiz ere, honek ez du esan nahi guztia eginda dagoenik arlo honetan, hutsuneak asko baitira eta arazoan benetako konponketan aurrera egiteko irudimen handia da beharrezkoa.

#### Ingurugiroaren berreskuratzea

Metropoliak lortutako garapen maila benetan iluntzen zuen puntuetako bat ingurugiroa hondatua zen. Azken urteotan eta arlo honetan burututako politika ondorioz, ingurugiroa berreskuratzeko arribide integral baten oinarriak ezartzea posible izan da, eta horren aurrera pausu adierazgarriak dagoeneko ikusten dira. Horien artean honako hauek bereiztu behar dira: Nerbioi Beherea Garbitzeko Egitasmo Integrala, hondakin eta lurzoru kutsatuen tratamendua, eta oraindik ere garrantzitsuena dena, hiritarren kontzientziazio gero eta handiagoa ingurugiroaren garrantziari buruz komunitateko atal moduan.

Etorkizunerako bideak eta hasitako hobekuntzaren jarraipenak beharrezkoa dute honako puntu hauetan sakontzea: arazoan planteamendu orokorrak, enpresa sektorearen partehartze gero eta handiagoa eta lankidetzaren publiko-pribatua eta tresna ekonomiko berrien ezarpena, parte hartzailei inguruarekiko errespetu handiagoko jarrerak harraraziko dietenak.

#### Hiri birsortzea

Hiriaren ikuspegitik, gaurko Bilboko metropolia hamarkadaren hasierakotik oso ezberdina da. Beste garai bateko hedapen ekonomikoak eragindako urbanizazio arribide neurrigabetik, arribide ordenatu eta ekintza dinamiko, orientatu eta kalitatezkoetara pasatu da. Udalen ekintzak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eta koordinazioarekin, kalitatezko eta kantitatezko aldaketa sakona eragin du Bilbao Metropolitarraren bizitzan. Udal guztiek burutu dituzte hiri espazioa hobetu eta artikulatzeko jarduerak. Arribide horren adibiderik onenetariko bat Biltzarren eta Musikaren Euskalduna Jauregi inauguratu berria dugu, eta horrek, Guggenheim Bilbao Museoarekin batera, Abandoibarra erdialde espazio berri bihurtu du, Bilboko metropolian ematen ari den eraldaketaren adibide.

Birbizte bultzada berri beharrezkoak dagoeneko martxan dauden proiektu garrantzitsuak bukatzeak ezezik, batetik, hazkuntza inteligente baten estrategia hartzeak eta, bestetik, metropolia osatzen duten udalerrri guztiek duten ikuspegi urbanistiko metropolitarraren bat osatzeak ere ekarriko ditu.

### Nagusitasuna kultura arloan

Bilbao Metropolitarraren industria hiri bat izatetik munduan Guggenheim Museoa dela eta, gaur egun nazioarte mailan arte modernoaren adierazlerik handiena, ezaguna eta onartua izatera pasatu da. 1997an inauguratu zenetik, museoak nazioartera atera du hiriararen irudi kulturala. Bilbaok munduan sorrarazten duen interesa agerian geratzen da Bizkaiko turisten zenbatekoan, %60 baino gehiagoko hazkuntza harrigarria izan duena 1996 eta 1998 artean, munduko beste lekuetatik datorrenak bikoiztu direlarik.

Guggenheim Bilbao Museoaren martxan ipintze arrakatsuak, dagoeneko arkitekturaren historiara pasatu dena, eta Bilboko Arte Ederretako Museoaren dinamizazioak bistan utzi dute birbizte arribidean kulturak duen garrantzia. Gaur egun, erronka nagusia kultura azpiegitura berrien eta aurretik zeuden besteen probetxamendurik handiena bermatzea da, horrela Bilbao Metropolitarraren irudia modernitatearekin lotzera zuzendutako ekimen ezberdinen koherentzia bermatuko da epe luzean.

### Herri Administrazioen kudeaketa koordinatua

Bilbao Metropolitarraren garapen arribide harrigarriaren elementu bereizgarria da, batetik, Herri Administrazioen maila guztietako konpromezu handia eta, bestetik, lankidetzaren publiko-pribatuaren maila metropolia birbizteko helburu komunarekin. Konpromezua indartzea, koordinazioa bultzatzea eta lankidetzaren publiko-pribatua zabaltzea da aurrera jarraitzeko eta helburu berriak lortzeko modua; izan ere, helburu horiek gehienetan ez dira baten erantzukizuna, gizarte agente ezberdinen artekoak baizik.

### Gizarte artikulazioa

Gizarte arloan egindako ahaleginak Bilbao Metropolitarrari posible egin dio hiritarrei beste aukera bat eskaintzeko gizarte bidezkoa lortzeko zuzendutako neurriak ezartzen lehenengoa izatea. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da pobrezia espazioan kontzentratzen dela leku jakin batzuetan, bereziki langabezia eta gizarte bazterketa pairatzen dutenetan.

Era berean, gogoratu behar da azken urteotan Bilbao Metropolitarraren etxerik gabeko pertsona gero eta gehiago dagoela (emakumeak eta gazteak bereziki) eta horrek gizarteratzerako prozedura bereziak martxan jartzeko beharra planteatzen du eragindako kolektibo guztiak sartu ahal izateko.

**Bring your dreams to Bilbao. Lortuko ditugu.**

**Ikuspena. Bilbao. The city where dreams come true**

Kapitulu hau gogoeta estrategikoaren aribidearen oinarria da, aukeratutako oinarrizko ideia eta etorkizunerako eragilea deskribatzen baita. Oinarrizko ideia horrekin Bilbao Metropolitarraren iragana argituko da, oraina ulertuko da eta etorkizuna bideratuko da.

Azken hamarkadan Bilboko metropolitarrak jasan duen birbizte aribide kementsuak etorkizunerako baikortasun egoera ekarri du. Oraintxe dugun erronka da baikortasun hori probetxatzea, baita lortutako hirigintza, ingurugiro eta gizarteko lorpenak ere, bikaintasuna lortzeko bidean jarraitzeko munduan erreferentzia izango den metropolia lortuz: “World Class” metropolia.

Ekonomiaren globalizazioarekin bat etorritik eta Ezagutza Gizartearen ezarketa azkarrarekin, aukera berriak, neurri handi batean, pertsonen ahalmenarekin zerikusia duten elementu ukiezinen garapenen menpe egongo dira, baita hiriaren potentzialarekin ere, elementu horiek modu egokian gizartaratzeko eta elikatzeko.

Hiri-garapen estrategikoen nazioarteko eredu aurreratuen azterketa hausnartzen duen gogoeta estrategiko zabalean oinarrituta eta nazioarteko konpetentzia progresiboa eta zaila kontuan izanda, Bilbao Metropolia-30k ikusi du, 133 bazkideren kolaborazioarekin eta partehartzearekin eta nazioarteko hogeitau adituren laguntzarekin, Bilbao Metropolitarraren arrakasta berezko eta kanpoko ideiak erabakitaz eta trebetasunez bilatu, identifikatu eta probetxatzean datzala, aldi berean errealitate konkretu bihurtuz. Bilbao horrek hazkuntza kota altuak, aberastasunaren sorketa, guztientzako bizi kalitate altuagoa eta munduko onarpena lortuko ditu. Azken finean, munduko merkatuan dudarik gabe agertuko diren aukerak sortu eta probetxatu.

Lortutako ondorioaren berehalako ondoreak Bilbao Metropolitarraren oinarrizko ideia ekarri du. Beharrezkoa da egitea hiri bat non idealak, berdin da zeintzuk, lor daitezkeen; komunitate osoarentzat ideia onak identifikatu, erosi, gauzatu gai izango dena; ideiak sortzen, bultzatzen eta garatzen dituen. Azken finean, ametsi ongiatorria ematen dien Bilbao Metropoliarra da ideia berriak maite dituzten eta haiekin identifikatzen diren pertsonentzat hiri aproposa itxuratzen dena: ona bada Bilborako da.

Oinarrizko ideia hau ez da ametsa ezta utopia eta hiriaren historiak hainbat adibide ditu hori ziurtatzeko. Praktikan, Bilbao pozik egon ahal da kointzidentzia handia baitago arrakasta lortzeko egitea beharrezkoa dena eta historian egiteko gai izan denaren artean. Hain zuzen ere, Bilboko 700 urteko historian adibide asko egon dira fede ematen dituztenak hiriak ideiak ilusioko errealitate eta aberastasunaren sortzaile bihurtu dituela hazkuntza ekonomikoaren aukerak probetxatzeko eta gainbehera egoerak gaitzetzeko baliabide bezala.

Bilbao Metropolitarrak abantaila lehiakorra sustatu eta espezifikazioak esplotatu behar ditu etorkizunerako oinarrizko ideia indartzen duten gakoak eta funtsezko alderdiak bilatuz.

### **Gako estrategikoak. Made True in Bilbao.**

Lidargo bizia eta konpromezuduna

Lidergo bizia eta konpromezuduna finkatzea da Bilbao Metropolitarrari itxura eman behar dion lehendabiziko gakoa. Liderrak dira ametsak bete eta errealitate bihurtzen dituztenak. Ideiak aztertu, identifikatu, erosi eta materializa ditzaketenak, inguruko eta mundu osoko iritzi eta pentsamendurik aurreratuen eta irudikorrenak jaso eta komunitate osoaren partehartzearekin martxan jar ditzaketenak. Liderrak dira metropolia eraldatu eta etorkizun berria sor ditzaketen ideien iturria.

Besteek arazoak eta gainbehera ikusten dituztenean, liderrek aukerak ikusi, itunpea eta hitzarmena eraiki era beren komunitateak adierazitako norabidean mugitzen dituzte. Askotan enpresa sektoretik datoz eta uste sendoa duten ekintzaileak dira: beren enpresa edota erakundeen epe luzearako ongizateak harreman estua du beren aldearen epe luzearako osasunarekin. Hala eta guztiz ere, sektore publikoan, unibertsitateetan eta “hirugarren sektorea” osatzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeetan dute jatorria, edo guztien arteko harreman eta elkarlanetik ere badatoz.

Komunitatea zuzperrarazten duten neurrian bere garapenean aurrera egiteko, liderrak gizarte-kapitalaren hazia dira eta hazi horrek, era berean, gizarte-lidergo berriak sustatzen ditu, atzetik indarra hartzen duen gurgil/motor batean: gizarte-kapital altua duten lekuetan, non gizarte zibil aktiboa eta konfiantza eta elkarrekikotasuna baitago, lidergo berriak sortzen dira, eta hauek komunitatearen partehartze aktiboa eskatzen dute egitasmo komunetan, horrela gizarte-kapital berria sortuz.

Bilbao Metropolitarrak era honetako agenteak identifikatzea edota indartzea lortzen badu eta, hitzartuta, behar diren konfiantza eta laguntza maila ematea erabakitzen badu, bere esku izango du etorkizuneko Bilbaori buruzko oinarritzko ideia arrakastaz garatzeko gakoetako bat. Baina lidergo hori ez da berria Bilborentzat, historian gure egunetako metropolia egin duten lidereta ekintzaileak izan baititu.

Azken hamar urteotan ekonomia, politika, gizarte eta hirigintza mailan izandako berreraiketa sakona da Bilbao Metropolitarran har daitekeen lidergoaren adibiderik argiena.

Ekonomia mailan, hirurogeita hamar eta laurogeita hamargarren hamarkadetan pairatutako krisialdi sakonaren ondoren, Euskal Herria berriz ere estatuko hazkuntzaren buruan dago. Hala gertatu da krisialdiaren eragozpenak gainditzen edo azken urteotan ospe berriz sortzen jakin duten enpresari askoren dinamismo eta lidergoari esker, guztion artean enpresa-ehun berritzailea eta guztiontzako aberastasun eta ongizatea ekarriko duena osatu ahal izateko.

Ezin dugu alde batera utzi Herri Administrazio ezberdinek egindako lidergo garrantzitsua; izan ere, hauek “Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Egitasmo Estrategikoa”ren bidez antolatutako gizarte hitzarmen maila altu batekin, martxan ipini dute hiria birsortzeko hainbat egitasmo: Euskalduna, Miraflores, Calatrava pasabidea edo Zubizuri zubiak, Txurdinaga, Etxebarria eta Ametzolako parkeak, kaleak oinezkoentzako egitea, Metro Bilbao eraikitzea, Sondikako aireportuaren terminal berria, Bilboko Portuaren zabalkuntza, Biltzarren eta Musikaren Euskalduna Jauregia, Itsas Museoa, eta, jakina, Guggenheim Museoaren eraikinak. Birbizte proiektu hauek eraiketa gainditzen dute eta hiria funtzionaltasun berri eta sofistikuagoz

hornitzea bilatzen duten ideien materializazioa dira, bai hiritarrentzat bai bisitarientzat (gero eta gehiago direnak).

Garrantzitsuena: pertsonak eta bere balioak. Profesionalen hiria

Ekonomiaren globalizazioaren nazioarteko testuinguru berria, aldaketa teknologiko bizia, hirien garrantzia gero eta handiagoa eta elkarlehiaren indartzearen ondorioz, derrigorrezkoa da pertsona eta bere balioak azpimarratzea etorkizuneko garapenerako bigarren gako estrategiko bezala.

Gaur egun, metropolien eta bertan burutzen den edozein birbizte strategiaren arrakasta edo porrota pertsonen esku dago. Hauek ez dira egitasmoak egin eta materializatzeko gai bakarrik, baizik eta, askoz garrantzitsua dena, ideien iturburua dira. Bilbao Metropolitarraren etorkizunaren oinarritzko ideia giza-ehun batek eragiten du, amets egin eta komunitateko etorkizuna planteatzeko gai diren pertsonak, ideiak, ahalmena eta hauek aurrera eramateko zer egin dakiten pertsonak alegia.

Pertsona guztiak dira garrantzitsuak komunitate metropolitarra eraikitzeke orduan. Guztiak, bere heziketa, estatusa edo gizartean lortutako arrakasta kontuan hartu barik, etorkizunerako ikuskera komun batean ezinbesteko elementuak baitira.

Bilbao Metropolitarraren etorkizunerako oinarritzko ideia erreferentziatzen hartuta, beharrezkoa da, pertsonen alde egindako apustu orokorraz gain, asmo hori profesionalen taldean fokalizatzea lidergorako potentziala dela-eta, eta bereziki, teknologia berrietara egokitu eta horiek ustiatzeko duen ahalmen, know-how-a eta konpetentzia direla-eta. Izan ere, teknologia horiek egoera sozioekonomiko berriaren bilakaera ezartzen dute planetako herririk aurreratuenen joerarekiko. Gizarte zabal eta proiektioduna, Bilbao Metropolitarrak bezala, bere profesionalen gain, talde horretako pertsonak metropolira ekartzearen alde ere egiten duena, etorkizunari buruzko ikuskeran integratzeko.

Ezagutza eta berrikuntza

Bilboko metropolia ideiak errealitatea egiten diren lekua izateko, profesionalen gain beharrezkoa da hauek ezagutza izatea eta modu berritzailean jardutea. Izan ere, ezagutza ideia berrien hazia da, eta berrikuntza, ordea, ideiak arrakastaz ustiatzen diren aribidea, komunitate osoaren onurarako. Zentzu horretan, ezagutza eta berrikuntza da Bilbao Metropolitarraren etorkizun oinarritzko ideia mamitzen duen hirugarren gakoa. Berrikuntza, gauza guztien gainetik, gizarte fenomeno da, ez baitagokie enpresei bakarrik, komunitate osoari baizik —hiritarrak, instituzioak eta erakundeak—.

Berrikuntza metropoliaren edozein birbizte eta garapen aribidearen muinean dago, berez ideia berriak, proiektu berriak, joera eta norabide berriak baitakartza. Berrikuntzarik gabe aukera gutxi dago.

Ia proiektu berri guztiak jarduera berritzaile batetik sortzen dira, berritzailea gutxienez aurreko egoerekiko edo lehian dauden beste espazio edo hiriekiko. Helburua hiriaren bizi baldintzak hazi eta hobetzeko aribide bati ekitea da, eta hiriarekin batera, bertan bizi diren agente guztiena - hiritarrak, enpresak, instituzioak eta erakundeak-. Honi dagokionez, aurrerapen teknikoak ez dira



nahikoa, berez, arrakasta bermatzeko. Beharrei aurre hartzea eta etorkizunaren ikuskera argia izatea da berrikuntza.

Hiri bateko berrikuntza aribidearen arrakastaren elementu nagusiak eta funtsezko faktoreak ez dira sekuentziaka ordenatutako denbora-katea baten katemailak, elkarren osagarri diren bost atal ondo erlazionatu baizik. Berritzeko gai izateko metropoli batek honako hau behar du:

- ·Barru eta kanpo ingurunea zaindu gerta litekeen berrikuntza baten ikur edo zantzuak identifikatu eta prozesatzeko.
- ·Hiriaren gizarte ezaugarriak kontuan hartuta, etorkizunerako aukera handien eskaintzen duten proiektu eta elementu berritzaileen aldeko jarduerak zuzendu.
- Behar den ezagutza lortu eta sortzeko gai izan, hartara, aukera bat hartuta, hiriak eta bertako agenteek ahaleginak eta baliabideak ipini behar dituzte aukera hori martxan jartzeko.
- Aukeratutako proiektu berriak ezarri hiriaren egituraketan lagun dezaten.
- Aldez aurretiko elementuetatik ikasi eta arrakastak edo porrotak berrikusi esperientziaren ezagutza egokia hartzeko asmoz.

Bilbao Metropolitarra hiriaren errealitatea aldatu duen modernizazio aribide batean murgilduta dago. Urte gutxitan hiriak produkzio-ehuna eraldatu du zerbitzu aurreratuen enpresa gehiago eta hobeak sartuz, hauek industria gero eta berritzaileago batekin biltzen direlarik. Giza-kapitala inoiz baino trebatuagoa da. Metropoli hirigintza eta garraio arloan modernizatu da, ingurugiro mailan ahalegin handia egin da, eta Guggenheim Museoa bezalako proiektu ausartak onartu dira eta Bilboko metropoliaren ariman sartu dira.

Ideiak egi bihurtzeak, ametsak egi bihurtzeko hazi egokiarekin hiria eraikitzeak, hiritarren artean berrikuntza nahia gehiago zabaltzea eskatzen du, horrela aldaketei normaltasunez egokitzeak, ekintzaileak saritzeko eta ideia onak txalotzeko.

## Networking

Etorkizuneko Bilbao Metropolitarra mamitzen duen laugarren gakoa “networking” izenekoa da. Gaur egun, pertsona, enpresa eta erakundearen arrakasta aurreratuenak diren eta nazioarte mailan estandarrak ezartzen dituzten taldeetako kide izatetik pasatzen da. Informazioaren Gizarteak eskaintzen dituen aukera berri eta zabalak bakarrik dira posible bakarkako ahaleginak batuz eta osatuz, lankidetzak eta lan sare formalak eta ez formalak eratuz, ikasketa bizkortu eta lehiakortasuna indartzen duten bitartean. Sareek kideei harreman zabalago eta kalitate

handiagoko sistema baterako bidea zabaltzen die, eta baita euren kabuz eta bakarka lortuko ez luketen informazio multzo batera heltzeko bidea ere.

- Gizabanakoaren alderditik, Interneten agerpena eta ondorengo konsolidazioak mundu berri bati ematen dio zentzua, informazio fluxu dinamikoagoekin eta muga fisikoak gainditzen dituen talde lanerako posibilitateekin.
- Enpresentzat, berriz, gizabanakoaren baliabideak gainditzen dituzten eta modu orokorrean lehiatzeko beharrezkoak diren aukeren potentziala probetxatzeko beharrezkoa da networking delakoa.
- Azkenik, networking-ak erakunde publiko zein pribatuei helburu handizaleagoak ezartzea eta lidergo kementsuago bat finkatzeko aukera errazten die.

Logika onean, networking-ak potentzialik altuena lortzeko proiektu konplexuak zuzentzeko lidergoa eta bikaintasuna izan behar du. Izan ere, proiektu horiek parte hartzen dutenentzat interesgarriak eta balioa sortzeko gai izan behar dira, balizko lehiakideak aliatuen lerroa ekarriz eta baliabide eta ezagutzak batuz sinergiak sortuz.

Hiri sareen garapena

- Azken urteotan hiri sareek -“city networks”- aurrera pausu handia egin dute eta munduko hiri nagusien estrategiaren parte dira.
- Lidergo lekua eskatzen eta hiria modu zabalago eta handiago batean sustatzen uzten duten presio talde garrantzitsu bezala finkatzen ari dira.
- Teknologia aurreratuak ezartzeko tresna dira.
- Hiriaren kudeaketa maila guztietan informazio eta esperientzien elkartruke multzo handiago batera heltzea posible egiten dute -zerbitzuen horniketa, eragingarritasuna eta kalitatea kudeaketan, ingurugiroa, etab.-.

Bilboko metropolia “Eurocities” bezalako bikaintasun sareetan dago -gaur egun Bilbao erakundeko presidentea da-, non Europako 99 gune metropolitarrak nagusiak bilduta baitaude helburu batekin: komunitate gizarteratzearen aribidearen hiri dimentsioa indartzea, guztien interesekoak diren proiektu berritzaileak proposatuz eta europar erakundearen aurrean presio eginez. Era berean, beste herri batzuetako hiri edota erakundeekin kidetutako europar proiektu

ezberdinetan parte hartzen du. Networking modu gehigarri eta informalago bat komunikazio sare fisikoen hedapenaren ondorioz sortzen direnak dira, bereziki aireportu eta portuak. Zentzu honetan, Bilboko Portuaren eta Aireportuaren zabalketa iturri potentzial bat da networking harreman informal mota hau zabaltzeko.

#### Enpresa networking

Enpresa sareak ez dira gauza berria eta ondo aitortuta dago lankidetzeta eta aliantza estrategikoak eratzea erabat beharrezkoa dela enpresa lehiakortasuna hobetzeko elementu bezala, bereziki enpresa txiki eta ertaintzat.

- Garrantzitsuak dira hazkuntzarako elementu eta negozioak egiteko aukera berrien probetxamendu elementu moduan.
- Aktore orokorrek lekua ezagutzeko eta toki mailan lan egiten duten agenteek maila orokorrean lehiatzen ikasteko modua dira.
- Toki hornitzaileen sareen agerpena enpresa handien erosketa ahalmen erraldoia erakarri eta horien abantailak txikien eta ertainen sare zabalera hedatzeko bidea da.

Euskal enpresak gero eta sartuago daude esportazio eta nazioateratze merkatuetan eta, ondorioz, sare eta lotura garrantzitsuak ezarri dituzte atzerrian, bai Europa eta Asian eta baita Amerika Latindar eta Estatu Batuetan ere, horietan esparru ezberdinetako proiektuak aurrera eramaten dituzte eta sektore guztietako enpresa askorekin elkarlanean ari dira.

#### Networking beste eremu batzuk

Networking-aren potentziala ez da hiriaren Administrazioa eta enpresetara mugatzen, baizik eta herri erakunde eta erakunde pribatu ia guztientzat abantaila iturri bat da, horrela baliabide orokor erabilgarri guztiak ahalik eta gehien probetxatu ahal dira.

- Osasun zentroen arteko kooperazioa eta networking-a, nazio zein nazioarte mailan, osasun zerbitzu aurreratuak eta kalitatezkoak emateko zentro indibidualen aukerak gaindituz.
- Toki eta aldean garapenerako agentzien, Merkataritza Ganbaren, Unibertsitateen, udal zerbitzuen (liburutegiak, buruko osasun zentroak, etxeko laguntza zerbitzuak, herri zentroak, etab.) sareak eta elkarteak, esperientzien elkartrukea eta elkarrekin eta modu koordinatuan jarduerak garatzea posible egiten dutelako.

Aurretik aipatutako networking esperientziez gain, Euskal Herrian elkarte asko dago, eta horien artean Garapen Orokorrerako Agentzien Sarea (GARAPEN) edota Euskal Udaleen Elkarte (EUDEL) bereiz daitezke. Izan ere, horiek saiatzen dira, batetik, ahaleginak biltzen tokiko garapena sustatzeko eta, bestetik, esperientziak elkartrukatzeko arazo antzekoen konponketan. Bereiztekoa da Bilbao Metropoli-30en zeregina, Bilbao Metropolitarraren birbizte arribidearen kudeaketa osoaren funtzioetan hirien birbiztearen arloko zenbait sare eginkorren eta ospe handien dutenekin elkarlanean ari baita.

Era honetako esperientzien garapena probetxatu eta beste arloetara zabaltzea, toki, enpresa edo norbanakoaren arlora, aukera garrantzitsua da eta ezin da ihes egiten utzi.

### Metropoli erakargarria

Hiritarren bizi kalitatea bermatzen duen metropoli erakargarria bultzatzea etorkizuneko Bilbao Metropolitarrarentzako bosgarren gakoa da. Profesional gaituak erakartzen dituen elementu moduan, oinarritzakoa da hiriaren lehiakortasunarentzat. Horrexegatik, hiriaren erakargarritasuna bultzatzea, era berean, hiriarentzako aberastasuna eta hazkuntza sostengarria sor dezakeen elementua izan daiteke. Hiriak hiritarrei kalitatezko bizi estandarrak eskaini ahal badizkie, beren proiektuak ingurune abegikor batean aurrera eramanez nahi duten profesional gaituak ekar ditzake. Honek gehigarritzako errenta eta, ondorioz, bizi kalitatezko estandar hobekiak sor ditzake. Beraz, hiriaren erakargarritasunetik datorren zirkulua da.

Edozein modutan ere, metropoli erakargarri bat aipatzeak bizi kalitatearen kontzeptua osatzen duten bi dimentsio badiela agerian uzten duten aldagarri multzo bat jorratzea dakar. Batetik, dimentsio fisiko bat dago, aktibo ukigarriak —azpiegiturak kasu— sartzen dituen hiriaren eta ingurugiroaren berreskuratzearen barruan doazen alderdi guztiak biltzen dituena. Eta, bestetik, gizarte arloko dimentsio bat dago gogoeta estrategiko honen funtsezko alderdi guztietan islatzen dena.

Bilbao Metropolitarrak bere erakargarritasuna handitu du Guggenheim efektuari esker eta horrek hiritarren mentalitatean izandako eraginari esker, gaur egungo garaiari egokitzeko hiriak hasi duen bide berriaren ikur bihurtuz.

Bilboko metropolia kanpoko pertsonentzat erakargarria da, bai Estatukoentzat bai atzerrikoentzat. Museoak hiriaren irudian izan duen eraginak mundu osoan Bilbora buruz hitz egitea ekarri du: “Bilbao is on the map”. Gainera, erakargarria da bertoko biztanleentzat, beren bizi kalitatea hobetu dela ikusi dutenak. Guggenheim-ak Bilboko metropoliaren hiritarrei 80. hamarkadan industria krisiaren ondorioz desagertu zen harrotasuna itzuli die. Alabaina, jasandako berreskuratzea hiriaren bide berri bati ekiteko oinarriak ezarri ditu, garai berriekin eta beharizan berriekin baterago datorrena.

Ez dugu ahaztu behar gaurko gizartean aisiak duen garrantzia, kultura jardueri garrantzia handiagoa emateko beharra agerian uzten duena, eskaintza gizarteak mota honetako zerbitzuen egiten duen eskaerari egokituz. Horrela, ospe handiko kultura eta jolas eskaintza hiritarren bizi kalitatea erabakitzen duen elementu bat da.

## **Funtsezko alderdiak. Let's get down to make dreams come true.**

Bilbao Metropolitarraren etorkizun gakoak aztertu eta arakatu ondoren, kapitulu honetan gako horiek mamitzen dituzten funtsezko zortzi alderdiak sailkatuko dira. Funtsezko alderdi bakoitza atal berezi batean azalduko da.

### **Lankidetzaren publiko-pribatua**

Lankidetzaren publiko-pribatua esatean honako hau ulertzen dugu: herri instituzio/erakunde bat edo batzuren ekintza erakunde pribatu bat edo batzuren ekintzarekin -gizabanakoak, enpresak, elkarteak, erakundeak, patronatuak, fundazioak, GKEak, etab.- tartekatzen den edozein ekimen, gizarte helburu komuna dutela. Lankidetzaren publiko-pribatua lidergoa eta ekintza ahalmena Herri Administrazioak baino harago zabaltzeko modu zentzuzkoa, malgua, dinamikoa eta solidarioa da. Horrela, gizartearen ahalmenak probetxatzen dira, proiektuak finantzatzeko potentzialak herri aurrekontuak gainditzen ditu eta hirian biltzen diren interes aniztasunaren koordinazio handiagoa errazten da.

Lankidetzaren publiko-pribatua ideien kudeaketa eta burutzapenak hirietan eskatzen duen lidergoa duen alderdi nagusia da. Kasu batzuetan, eragindako agente guztien partehartzea modurik onena da lidergo egokia asmatu, diseinatu eta eraikitzeko, beharrezkoa eta etorkizunean ikuspegi eta konfiantza ematen duena. Beste batzuetan, lankidetzaren publiko-pribatuak zabalak ematen duen sinisgarritasunak berak posible egiten du identifikatzea, bermeekin, izatez, esperientziaz, ideiez, sormenez edo trebetasunez, hiriarentzat garrantzia bizia duten proiektuak egiteko gai diren lider potentzialak.

Lankidetzaren publiko-pribatua lidergoaren eta beren lanaz etorkizuneko proiektuen diseinu, garapen eta burutzapenean laguntzen duten pertsona edo erakundeen asmo lehiariaren hazi tinkoa da. Liderrek hiriaren bizitza eta estrategia estimulatzen dute nahi duten norabidean.

Lankidetzaren publiko-pribatua, bestalde, hirien eta hirietako networking-a sustatzeko funtsezko alderdi bat ere bada, kideak, erakundeak, ideiak eta ezagutza interesgarriak identifikatuz -herri erakargarriak adierazten ditu, harremanak identifikatzen ditu eta laguntzaile potentzialak zehazten ditu-; izan ere, horiek guztiek hiriko hirugarren sektoreko enpresen, gizabanakoaren, erakundearen, etab.en sare-lana bultzatu eta errazten dute.

Azkenik, lankidetzaren publiko-pribatua ezagutzaren sustapenerako eta metropoliaren berrikuntzarako funtsezko alderdi bat da. Lankidetzaren publiko-pribatuak agenteen arteko konfiantzazko giroaren sorketa errazten du, iritzien elkartrukea posible egiten du eta esperientziak partekatu eta ezagutza transmititzen uzten du. Era berean, agenteen arteko ekintza koordinatuak burutzen, bikoiztasunak saihesten eta berrikuntza aribidea modu eragingarri batean kudeatzen uzten du.

Lankidetzaren publiko-pribatua konstante bat da Bilboko metropolian, eta esperientzia bereizgarrien artean honako hauek aipa ditzakegu: (i) metropolia murgilduta dagoen modernizazio aribidea bera, sarritan kapital publiko eta pribatuarekin eraikitako azpiegitura kultural garrantzitsuen, eta pertsona, agente eta gizarte zibilaren partehartze eta kooperazio aktiboaren emaitza, orokorrean kultura gertaera eta proiektu asko finantzatzeko: arte galeriak, fundazioak, operaldiak, musika

kontzertuak , erakusketak, hitzaldiak, etab.; (ii) Euskal Herriko zentro teknologikoak fundazio bihurtzea, enpresa pribatuen partehartzearekin, aldearen berrikuntza ahalmenarentzat bultzada argia dena.

### Kalitatezko heziketa-sistema

Ekintza konkretuen gauzapearen inguruan dauden barietatea eta iritzi esparru zabalak zera adierazten du, pentsakera lehiati bati lotuta, pertsonak beren ametsak eta kolektibitatearenak gauzatzen uzten dieten ezagutzak eta, bereziki, jarrerak hartu behar dituztela.

Bilbao Metropolitarrak kalitatezko nazioarteko heziketa-sistema batez hornitu behar da proiektu berriak eta aberastasuna sortzen duten jarduerak martxan ipintzeko gai diren eta ideiak eta lidergoa duten profesional gaituak sortzeko.

Heziketa-sistema pertsonen gaikuntza eta lidergoa mamitzen dituen funtsezko alderdi baten moduan agertzen da, etorkizuneko Bilbao Metropolitarraren gakoetako bi alegia. Heziketa-sistemaren gakoetarako bultzada sakonagoa izateko eta espero diren efektuak sortzeko, oinarrizko bi ezaugarri izan behar ditu:

Lehenenik, nazioarteko maila izatea, bikaintzat jotzen diren zentroekin lotura handiago bat lortzeko, horrela ezagutza eta teknologia berrietara heltze azkarra izateko eta abangoardiako ikerketa proiektuetan aktiboki parte hartu ahal izateko.

Bigarrenik, kalitatezkoa izatea, heziketa-sistema ideiak eta lehen mailako profesionalak sortzen dituen bikaintasun gune baten moduan osatzeko, Bilbao Metropolitarraren enpresa-ehuna mamitzen duen lorbide bezala jokatzu, bai gaurko sektoreetan eta baita enplegua eta aberastasuna sortzen duten gune berrietan eratzen direnetan.

Aktibo ikutuezinen garrantzia gero eta handiagoak soziokultural erako balioen ikasketa ere sartzeari ekartzen du, kultura lehiatua, lidergorako ahalmena eta asmo berritzailea, besteak beste. Horrela, heziketa-sistema, eskola irakaskuntzatik etengabeko heziketara, unibertsitate irakaskuntzatik, lanbide heziketatik eta bigarren aukerako heziketatik pasatuz, komunitatearekin konprometituta dauden liderrak eta beren ideia eta proiektuak gauza ditzaketen profesionalak sortzeko elementu potentzial bihurtzen da.

Heziketa, bilakaera aribide baten moduan ulertuta, pertsonen bizitza profesionalean etengabeko trebakuntza errazten duen sistema batean bermatu behar da; hartara erantzun berritzaileak eskainiz eta handiagotzen ari den lehiakortasunera eta teknologia berrien eskakizunetara egokitzapen azkarra erraztuz aldaketei aurrea hartzen uzten dion metropoliarentzat baliabide dinamiko eta bizia izango da.

Ekonomiaren globalizazioak eta nazioarteko kooperazioaren beharrak heziketa-sistemari gaitasun eta ezagutzetan punta-puntakoa izatea eskatzen diote.

Azkenik, heziketa-sistemaren multzoak aktiboki hartu behar du parte networking-aren garapenean, mundu mailako talde aitzindari eta bikaintasunezkoetan sartuz ezagutzaren eskuraketa errazteko eta emandako heziketaren kalitatea epe luzean hobetzeko.

## Gizarte konektatua eta nazioarteko kooperazioaren alde egiten duena

Etorkizuneko Bilbao Metropolitarra gizarte konektatu eta nazioarteko kooperazioaren alde egiten duenetik pasatzen da; munduko joerak ezagutzen dituen gizarte zabal, geldiezin, informatua eta munduan dabilzan baliabide intelektualak eta ideiak hartzeko gai dena; eta baita etengabeko heziketa bilatzen eta konfiantzak komunitatea hartzen duen gizartetik ere.

Bilbao Metropolitarra ezagutzen elkartrukea saritzen duen eta ideia berrien ekarpena baloratzen duen gizarte baten moduan eratuko da. Baliagarritasuna eta laguntzeko ahalmena, eta bereziki nazioarte mailan, ez dator kasualitatez, baizik eta, prozedurak ezarriz eta horretarako beharrezkoak diren tresnak eskuratuz, elementu estrategiko baten moduan erraztu eta indartzen duen produkzio- eta gizarte-ehun egoki baten ondorioz.

Gaur egun, nazioarteko kooperazioa eta komunikazioa bi elementuk eusten dituzte:

- Informazioaren teknologiak, ezagutza iturri handi eta garrantzitsuetara azkar eta eragingarritasunez konektatzea erraztu, enpresak eta aberastasuna sortzeko aukera berriak zabaldu eta mundua ulertu eta kudeatzeko modu berriak posible egiten dituztenak.
- Ingelera, lan, zientzia, negozio, kultura, turismo edota gizarte bizitzaren arlo guztietan nazioarteko komunikazio tresna moduan azkar finkatzen ari dena. Garapenetik eta ingeleraren erabilpenetik kanpo geratzeak nolabaiteko isolamendura edota garapenerako muga garrantzitsuak dituen menpekotasun handi batera zigortzen du.

Nazioarteko sareetan, kultura anitzeko foroetan, hiri sareetan, enpresetan eta orokorrean erakundeetan egotea hizkuntzen ezagupenean eta informazioaren teknologia berrien ahalmena eta menderakuntzan bermatzen da.

Historian, Bilbao kanpora zabaldu delako eta nazioarteko merkatu eta aliantza berriak bilatu dituelako bereiztu da. Horren adibide onak dira 1511n “Bilboko Kontsulatuaren” eraketa edota, XV. mendearen erdialdean, kanpo aliantzen ezarketa hiriaren lehentasuna bermatzeko Burgosetik zetorren Gaztelako artilearen garraioan; izan ere, merkataritza bide hori hegoaldean Gaztelako hiriekin eta iparraldean Nantes, Londres edo Brujas bezalako portuekin konektatzen zen.

Edo, berriago, euskal join ventureak beste herrietako enpresekin, edota teknologia zentro eta Unibertsitatearen arteko lankidetzak nazioarteko ikerketa proiektuetan.

Hiri osasuntsu eta segurua

Bizi itxaropenaren luzapenak eta ohitura osasuntsuak hartzeari buruz hiritarrek duten sentsibilizazio gero eta handiagoak garapen osoa eta gaitasun fisiko eta mentalen babesa bermatzen duen ingurune bat eskaintzera bultzatzen dituzte hiriak.

Ingurune osasuntsu honen elementu erabakigarrietako bat komunitatearen segurtasuna da. Gainera, hiritarrak gehien kezkatzen dituen erronketako bat da, alderdi ikusgarrienetako bat eta gizartearen jardueran eragin handien duen alderdietako bat delako.

Bestalde, era guztietako jarduera ekonomikoak —merkataritzakoak, industriakoak, turistikoak, etab.— eta zenbait gertakari —kirol topaketak, kontzertuak, azokak, biltzarrak, etab.— gara daitezten baldintza da. Gainera, horrelakorik ez ematea metropolian pertsonak, enpresak eta erakunde bikainak integratu eta finkatzeko traba handia da.

Fenomenoaren konplexutasunak behartzen du, batetik, bereziki segurtasun falta sortzen duten arazoietan eragina duen ikuspegi orokor eta oso batera eta, bestetik, agente publiko eta pribatuen arteko jarduera koordinatu batera. Hiriaren segurtasunaren hobekuntza prebentzioa eta, hau ez dabilen neurrian, segurtasun faltaren agerpenen kontrolaren arteko oreka konplexua da. Hori guztia beste hiri politika batzuekin koordinatuta, esaterako, azpiegiturak, aisiaren gozamina, hezkuntza, lana, etab.

Honek zera adierazten du: segurtasuna hirietako bizi kalitatearen elementu bereiztaile bat baldin bada, Bilbao Metropolitarraren agente publiko eta pribatuek ahalegin garrantzitsua egin behar dute alderdi honetan nazioarte mailan lehena izateko eta metropoliarentzako elementu bereiztaile eta erakargarri bihurtzeko.

### Modernitate kulturala

Modernitate kulturalak nazioarteko mailako metropoli kultural baten burutzapenari egiten dio erreferentzia; izan ere, metropoli horrek bere tradiziozko aktiboak eraginkortasunez erabiltzen ditu kultura eta arte mailan eta, neurri berean, nazioarteko abangoardiako mugimenduen alde egin eta indartzen ditu.

Modernitate kulturalak, era berean, gizarte arloko modernizazio erabide bat ere darama, kultura eta aisiarekin zerikusia duten gizarte taldeen eta orokorrean biztanleen aldetik sentsibilitate eta gizarteratze maila altua lortzeko. Kasu honetan gizartearen artikulaziorako tresna da kultura.

Modernitate kulturalak adierazten du ere, barne kohesioa finkatzen duen neurrian, osotasunean aurrera egiten duen gizarte bat dagoela, horrela, hiritarrentzako eta munduko gainerakoentzako komunitate zabala, modernoa, sortzailea, berritzailea eta erakargarria osatuz.

Era berean, hirigintza arloko modernizazio proiektuetan sartzea dakar, eraikinak eta hiriko zentroak errekerperatuz aisi, kultura, jolas, merkataritza, hostalaritza edota turismo jarduerak garatzeko.

Modernitate kulturalak ekonomia arloko modernizazio arribide bat ere badakar kulturaren industria baten sorreratik abiatuta. Azken horrek gaitasun profesional berriak sustatuko ditu,



gizartean teknologia eta berrikuntza kultura bat garatuko du, gizarte sormena eta aribide teknologikoen, eta baita horrek guztiak dakartzan gizarte aldaketen ezagutza ere eragingo du.

Kultura industriaren potentziala, beraz, Bilbao Metropolitanrean gogoan izan beharreko elementu bat da, bizi kalitate altuko gizarte bat, aberastasuna sortzen duten jarduera aurreratuetan oinarrituta, egotea errazten baitu. Gizarte landua, gainera, gizarte hezitua, alkartasun eta elkarketa balioak dituen, irudikorra eta lehiatia, etorkizunak dakartzan erronken aurrean baikortasuna eta aurre egiteko gogoak dituen da. Merkataritza iturri bat, metropoliaren industria joera eta bidea osatzeko eta produkzio berrikuntzarako proiektuak aurrera eramateko erabil daitekeena.

Modernitate kulturalerako bidean Bilbao Metropolitanarrak pausu handiak eman ditu hiri, ekonomia eta gizarte birsortze arloko kultura esparruetan, baina oraindik ere bikaintasunerako bidea geratzen da.

Bilbao Metropolitanarra era guztietako jarduera eta gizarte topaketen egitarau handiagoa eta zabalagoa lortzen doa, eta nazioarte mailako jazoerak finkatuz doa. Guggenheim Bilbao Museoak, bere aldetik, hiri moderno eta nazioarte mailan ezagunaren garapenaren burua eta muina bezala finkatuz doa. Hori, Arte Ederretako Museoa eta museo arloan garatzen ari diren beste proiektu batzuekin batera, kultura mailan bereizten den hiri baten hazia eta ikurra dira, bere baliabideak probetxatzen dituen aberastasunaren sorketan aurrera egiteko eta metropolia birbizteko.

Azkenik, industria ustiapen handiago batean murgil daitekeen elementu bat euskal kulturak tradiziozko arteetan —eskultura eta pintura—, industria arteetan —zinema, enpresa bideografikoak— eta bertako kiroletan —pilota, arrauna, herri kirola orokorrean—duen berezitasuna eta aberastasuna da. Ezin dugu ahaztu nazioarteko ospea duten artistak eta komunikabide aurreratuen inguruan mamitzen den ikusentzunezko industria handia dituela.

#### Hiri birsortzeari bultzada berria

Bilbao Metropolitanarrak hiri birsortze lan garrantzitsua burutu du eta garatzen ari da. Izan ere, lan hori indar berriekin eta hazkuntza inteligenteari ikuspuntu batetik bultzatu behar da, betiere hazkuntza eredu zabalgarriak utzi eta zentzuzkotasuna errazten duten hiri garapen eredu berriekin bat etorritz.

Ikuspuntu metropolitarretik, industria birregituraketa sakonak, gune periferikoetako etxegintzaren hedapenak, lan, merkataritza eta aisi zentrozen deszentralizazioarekin eta kontsumo gidalerroen eta bizitokiaren lehentasunari dagokien aldaketarekin batera, hiriaren garapen aribidean kontuan izan beharreko aldaki berriak ekarri dituzte.

Alde batetik, berdeguneak galdu egiten dira, bai hirigune barruan eta baita kanpoan ere, eta, beste alde batetik, lurzoru kutsatuak edota degradatuak daude. Lurzoru horiek metropoliarentzako oztopoa dira eta, dagoeneko indarrez egiten ari denez, dagokien kutsadura gabetze aribideen ondoren, hiri birsortze aribide osoarentzako oinarria diren erabilera berrietan birrerabili behar dira.

Era berean, aintzat hartu beharko lirateke, bereziki, biztanleriaren mugimendu fluxuak garraibide publiko ezberdinetan —hirian ibiltzea barne—, beren erabilpena optimizatuz funtzionalitatean oinarrituz. Ildo honetan, toki ekimenen partehartzeak eta lankidetzak publiko-pribatuak are gehiago lagunduko diote hiri birbizte aribideari ezarritako etorkizuneko gidalerroen arabera.

Honako hau funtsezko alderdia da Bilbao Metropolitarrak hiritarrei kalitatezko ingurunea bermatzen dien hiri erakargarri baten moduan ikusiko da. Horretarako, beharrezkoa da hasitako bideari ekitea, baina, batetik, teknologia aldetik konponbide berritzaileen erabilera bultzatuz, ikuskera oso eta etorkizuneko batekin; eta bestetik, aisiaz gozatzeko aukerak eta industria espazio berrien bultzada errazten duten ekimenei lehentasuna emanez aberastasuna sortzen duten eta ingurugiroa errespetatzen duten jardura ekonomiko berriak garatzeko.

